

Euskal Hezkuntza Sistema: etorkizuna elkarrekin lantzen.

FICOBA. Irun / 2023.09.30

DBH - BATXILERGO MAILAKO AZTERKETA.

Talde iraunkorra (9): Amaia Antero Intxausti (Arizmendi Ikastola), Josemanuel Bujanda (Eusko Ikaskuntza), Hur Gorostiaga (Seaska/Eusko Ikaskuntza), Joseba Ibarretxe Fdz de Larrinoa (Berritzegune Nagusia), Maite Urmeneta (Xalbador Ikastegia/IKAS Materialgintza), Amaia Gutierrez (Ikastolen Elkarte), Ainhoa Azpiroz (Hik Hasi), Beatriz Ugarte Maiztegi (Berritzegune Nagusia), Kristina Zuza (UPV/EHU)

Bigarren geruza (5): Jon Abril Olaetxea (Elhuyar), Julen Agirrezabalaga Lopetegi (Elkar), Markel Aranburu Bartau (Legebiltzarkidea EAJ), Saul Curto López (LAB Irakaskuntza), Gonzalo Larruzea (Jubilatua)

Idazkaria: Maialen Oiartzun (IkasGaraia ikerlaria)

AZTERKETA ETA EZTABAIDAREN BERRERAIKUNTZA

I. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa Euskal Herrian: non gaude eta nora jo nahi dugu?

DBH eta Batxilergo hezkuntza-etapen baitan elkartu diren eragileek bereziki EAEko hurbilpena ordezkatzeko dute, beraz, lurraldetasun-muga honek baldintzatu du honako analisia Nafarroako eta Iparraldeko datuekin osatu beharko litzatekeena.

Hau esanda, ikuspegi partzial horretatik, talde honetan bildutako kideek nagusiki aldatu beharreko **hiru hobekuntza-esparruetan** zentratu dute euren gogoeta. Honakoak dira:

- Hezkuntza eredua da horietako bat, derrigorrezko zein borondatezko hezkuntza-etapa hauen helburu orokorrak interpelatzen dituen: *Zein da DBH eta Batxilergo prestakuntzaren funtsa?*;
- Bigarrena, irakasleen profila eta formazioa berrikustea eskatzen duena: *Zeintzuk dira hezkuntza-etapa hauetako irakasleen funtzioak?*; eta
- Hirugarrenik, hezkuntza etapa hauek komunitate zabalarekin duten konexio-falta seinalatzen duena: *Nolako beharko luke izan ikastegiaren eta komunitatearen arteko indar kohesionatzaileak?*

Hala ere, edozein hobekuntza errealitatearen analisi zorrotz batetik ondorioztatutako zerbait izan behar da, eta hori egiteko taldeak ez du denbora gehiegirik izan. Hori dela eta, testuaren berreraikuntza prozesuan egungo egoerari buruzko zenbait ekarpen gehitu

dira, analisiaren sekuentzia, bederen, koherentziaz ezarri ahal izateko. Nagusiki lege markoetatik eratorritako preskripzioak dira, oso lagungarriak izaten baitira etapa honetako nondik norakoak zehaztasunez marrazteko, gaiari buruzko hizkuntz komuna eraikitzeo eta edozein hobekuntza "dagoenetik" irudikatzeko. Horrekin batera, berreraikuntzaren lehen bertsioak irakurle-bikote kritiko baten kontrastea jaso du eta ekarpen hauek integratuz abiapunturako lan-dokumentu hau osatu da.

Lege-markoen preskripzioak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo etaparako

Euskal Herri mailako hezkuntza eremu kohesionatu batez aritzeko, lehenik eta behin, ongi definitu beharko genuke lege-markoek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo etaparako preskribatzen dutena, eta egitate horretatik abiatu elkarlanean eraiki litezkeen balizko esperientzia integratuak. EAEn eta Nafarroan espainiar hezkuntza-sistema arautzen duen LOMLOE legea dago indarrean (3/2020 Lege Organikoa, 2020ko abenduaren 29koa), eta Iparraldearen kasuan, Frantziar Errepublikako Eskolaren birfundaziorako orientazio eta programazioarena, "Peillon legea" bezala ezagutzen dena (2013-595 Legea, 2013ko uztailaren 8koa).

Espainiako hezkuntza, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak arautzen du, baina **gobernu autonomoak arduratzen dira beren lurraldeko ikastetxeak kudeatzeaz eta finantzatzeaz**. Bigarren Hezkuntza derrigorrezko eta doako hezkuntza-etapa da, eta oinarrizko hezkuntza osatzen du. Lau ikasturte ditu, normalean 12 eta 16 urte bitartean egiten direnak. Batxilergoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko etapa da, eta, beraz, borondatezkoa. Bi ikasturte ditu, normalean 16 eta 18 urte bitartean egiten direnak.

Frantziaren kasuan, "Collège", DBHrekin bat datorrena, oinarrizko eskolaren ondoren eskolatutako haur guztiei bigarren hezkuntza ematen zaien ikastetxea da. Hor, ikasleek lau urte akademiko egiten dituzte: *sixième* [Lehen Hezkuntzako 6. maila], *cinquième* [DBHko 1. maila], *quatrième* [DBHko 2. maila] eta *troisième* [DBHko 3. maila]. Ekimentsu eta autonomoak izateko aukera ematen dien inplementazio-proiektu bat definitzen eta ezartzen dute. Eraikinen kudeaketa departamentuei dagokie, deszentralizazio-legeak betez. Institutu publikoak ere tokiko ikastetxe publikoak dira (EPL). Lurralde-komunitateei dagokie horiek eraikitzea eta mantentzea, institutuak eskualdearekin lotzen dituzten deszentralizazio-legeen arabera. **Institutu bakoitzak inplementazio-proiektu bat egin, eta horri esker, berariazko politika bat ezar dezake hezkuntza komunitate hartzailearen arabera**. DBH amaitzean, ikasleek Irakaskuntza Orokor eta Teknologikoko Institutu batean edo Institutu Profesional batean jarraitzen dute eskolatzen. Eskolaldia hiru urte irauten du: *seconde* ikastaroak [DBHko 4. maila], *première* ikastaroak [Batxilergoko 1. maila] eta *terminale* ikastaroak [Batxilergoko 2. maila].

Euskal Herria bi estatuek dituzten hezkuntza-araubide propioen menpe egonik, azterketa juridikoa burutu beharko litzateke EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean hezkuntza-arloko eskumenak proiektu komunak mesedera profitatzeko. Esate baterako, norabide horretan **aukera-leiho bat** izan daiteke 102/2010 Errege Dekretua¹, otsailaren 5koa, **Espainiako ikastetxeetan Batxiler eta Baccalauréat titulazio bikoitzari buruz Espainiako eta Frantziako Gobernuak egindako akordioari** atxikitako irakaskuntzen antolamendua arautzen duena. Esparru-akordio honen bitartez, bi estatuetako ikastetxeetako hezkuntza-, hizkuntza- eta kultura-programak garatu daitezke curriculum komun misto bakarrean integratuz. Baliteke gisa honetako lege-aukerak aproposak izatea hezkuntza-etapa honek erronkatzat duen proiektu-izarra egituratzen hasteko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko araubide orokorrak

Zein da DBH eta Batxilergo prestakuntzaren funtsa? Espainiar zein Frantziar hezkuntza legeetan **Bigarren Hezkuntzaren helburua** honela jasotzen da: ikasleek kulturaren oinarriko elementuak eskura ditzaten lortzea, batez ere alderdi humanistiko, artistiko, zientifiko-teknologiko eta motorretan; horietan, ikasteko eta lan egiteko ohiturak garatu eta sendotzea; baita bizi-ohitura osasungarriak ere, eta ondorengo ikasketetan sartzeko, laneratzeko eta herritar gisa dituzten eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko prestatzea.

Batxilergoaren helburua da prestakuntza, adimen- eta giza heldutasuna, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ematea, funtzio sozialak garatzeko eta bizitza aktiboan arduraz eta gaitasunez sartzeko. Halaber, etapa horrek aukera eman beharko du prestakuntza-eta lanbide-etorkizunerako ezinbestekoak diren gaitasunak eskuratzeko eta lortzeko, eta goi-mailako hezkuntzarako sarbidea gaitzeko.

Bi hezkuntza etapa hauei buruz legeek jasotako helburu zabalak aintzat hartuz, beharrezkoa da taldekideen iritziekin kontraste bat egitea. Izan ere, etapa hauetan diharduten kideek diotenez, DBH eta Batxilergoko **hezkuntza eredia ez omen dago pertsonaren garapen integralari begira pentsatuta**, eta ikasleak erdigunean kokatzeko zein inklusio-dinamikak sustatzeko zailtasun handiak ditu (esaterako, EAEko ikastegietan beste herrialde batetik etorri berri diren ikasleei harrera egiteko kohesio-estrategiak ahulak dira).

Hortaz, Euskal Herri mailako hezkuntza eremu kohesionatu batean zein beharko luke izan prestakuntza etapa honen iparra? Izan ere, hezkuntza eredia, irakasleria eta komunitate zabala agertzen zaizkigu aldaketen zerumugan baina ematen du erronken artean ez dagoela elementu kohesionatzailerik. Zerk lotu ditzake erronka horiek beraien artean?

¹ Dekretu honi buruzko informazio gehiago eskuratzeko: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2010/BOE-A-2010-4130-consolidado.pdf>

Bada, oinarrizko hezkuntzaren bukaeran lortu nahi dugun ikaslearen profilak. Eta hura definitzeko ikaslea bera denbora eta garapen-marko zabalagoan pentsatu beharko litzateke. Aurretik, haur eta lehen hezkuntzak helmuga horri egin behar dizkioten ekarpenak zeintzuk diren argituz, eta ondoren, bai Lanbide Heziketak bai Unibertsitateak demandatzen duten ikaslearen profila zein den kontuan hartuz. Alegia, definituko den profil horren garapena “continuum” bat bezala hartu daiteke, etaparik etapa osatzen dena eta komuneko programazio bat exijitzen duena, ikaslea bere osotasunean ikusiz.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen irteera profila

Irteera-profilaz hitz egiterakoan ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen fase hau osatzean garatuko dituzten funtsezko gaitasunen definizioaz ari gara (estatu frantsesean Ezagutza, Gaitasun eta Kulturaren Oinarri Komuna gisa izendatua dena). Curriculum osoaren giltzarria da, oinarrizko irakaskuntza osatzen duten etapetako helburuak ikuspegi egituratzaile eta funtzional batetik bateratzen dituen matrizea. Estatu espainolean² zein estatu frantsesean³ ikasle bakoitzari bizitza pertsonal, sozial eta profesionalerako proiektu egoki bat garatzeko ezinbesteko tresnak ematea iparrorratz duena. LOMLOEren kasuan, irteera-profila osatzeko, hainbat gida-dokumentu hartu dira kontuan, hala nola, Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioa (2018ko maiatzaren 22koa), etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzkoa; UNESCOren Hezkuntzako Nazioarteko Bulegoaren Key Drivers of Curricula Change in the 21st Century dokumentuan jasotako erronkak ere sartu dira, eta baita Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailean onartutako 2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko Helburuak ere (osatu beharko litzateke Frantziar estatukoarekin). Jarraian aurkezten den taulan, bi estatuetan indarrean dauden hezkuntza legeak eskuan, irteera-profilen sintesia egin da, ondoren ezberdintasun eta antzekotasun nagusienak zeintzuk diren aztertu ahal izateko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen irteera profilak	
LOMLOE Legea (<i>Erantzun beharreko oinarrizko errokak</i>)	<p>Jarrera arduratsua garatzea, kausen ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.</p> <p>Kontsumo arduratsuaarekin zerikusia duten alderdiak identifikatzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta haien eskubideen urraketaren aurrean kontrol soziala egitea.</p> <p>Bizimodu osasungarria garatzea, norberaren zaintzan eta gainerako pertsonen zaintzan erantzukizun pertsonala eta soziala bere gain hartuta, bai eta osasun publikoaren sustapenean ere.</p> <p>Espiritu kritiko, enpatiko eta proaktiboa garatzea, ekitaterik gabeko eta bazterkeriako egoerak detektatzeko, egoera horiek sorrarazten dituzten kausa konplexuak ulertuta.</p> <p>Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu behar direnak.</p>

² <https://educagob.educacionyfp.gob.es/ca/curriculo/curriculo-lomloe/menu-curriculos-basicos/ed-secundaria-obligatoria/perfil-salida.html>

³ https://www.legifrance.gouv.fr/codes/article_lc/LEGIARTI000038895266

	<p>Egungo gizarteak eskaintzen dituen mota guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta aprobetxatzea, batez ere aro digitaleko kulturarenak, horien onurak eta arriskuak ebaluatuz eta norberaren eta taldearen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.</p> <p>Ziurgabetasuna erantzun sortzaileagoak artikulatzeko aukera gisa onartzea, horrek ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.</p> <p>Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonal eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.</p> <p>Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokian-tokian, bai mundu osoan, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz.</p> <p>Bizitzan zehar ikasten jarraitzea ahalbidetuko dioten trebetasunak garatzea, ezagutzarekiko konfiantzatik abiatuta, garapenaren eragile gisa, eta azken horren arriskuen eta onuren balorazio kritikoa eginez.</p>
<p>“Peillon” Legea (Oinarri Komunaren edukia eta ikuspegia)</p>	<p>Ezagutzarako bidea irekitzen du, eta judizioa eta espiritu kritikoa eratzen ditu, munduaren ezagutza arrazionalaren elementu ordenatuetatik;</p> <p>Hezkuntza orokorra, irekia eta guztiontzat komuna ematen du, gizarte tolerantean eta askean bizitzea ahalbidetzen duten balioetan oinarritua;</p> <p>Gizabanakoaren garapena sustatzen du, inguratzen duen munduarekin elkarreraginean;</p> <p>Ulertzeko eta sortzeko, irudikatzeko eta jarduteko gaitasuna garatzen du;</p> <p>Ikasleen garapen fisikoa, kognitiboa eta emozionala babesten eta sustatzen du, ikasleen osotasuna errespetatuz.</p> <p>Ikasleei baliabideak ematen dizkie eskola-jardueretan parte hartzeko, jarduteko, besteekin elkar eragiteko, autonomia eskuratzeko eta, horrela, pixkanaka beren askatasuna eta herritar arduratsuak izateko.</p> <p><i>Eremuak:</i> (1) Pentsatzeko eta komunikatzeko hizkuntzak; (2) Ikasteko metodoak eta tresnak; (3) Garapen pertsonala eta herritartasuna; (4) Sistema naturalak eta teknikoak; (5) Munduaren eta giza jardueraren irudikapenak</p>

LOMLOEk XXI. mendeko erronkekin lotzen ditu funtsezko gaitasunak, horrek emango baitie zentzua ikaskuntzei. Eskola eguneroko bizitza-egoera, gai eta arazo errealetara hurbiltzeak, ikaskuntza-egoera esanguratsu eta garrantzitsuak bultzatzeko beharrezko laguntza emango die ikasleei zein irakasleei. Modu horretara, ikasleak beren garapen pertsonalerako prestatu nahi dira, bizitzako hainbat eremutako egoerak eta arazoak konpontzeko, hobetzeko aukera berriak sortzeko, prestakuntza-ibilbideari jarraipena emateko, eta gizartean eta pertsonen, ingurune naturalaren eta planetaren zaintzan txertatzen eta aktiboki parte hartzen laguntzeko eta garatzeko.

“Peillon” legearen ikasle-profilak, gehienbat, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzako lehen zikloan irakasten denari dagokio, eskola-kultura komuna osatzen baitute. Ikaskuntza eta bizikidetzaren oinarriak ezarri dituen haur-eskolarekin hasita,

derrigorrezko eskolatzeak helburu bikoitza du: hezkuntza eta sozializazioa. Ikasleei kultura komuna eskaintzen die, funtsezko ezagutzetan eta gaitasunetan oinarritua. Kultura horrek aukera emango die pertsonalki egiteko, beren gizarte-trebetasunak garatzeko, gainerako hezkuntzan arrakasta izateko, bizi diren gizartean integratzeko eta beren garapenean herritar gisa parte hartzeko. Oinarri komuna irakasleen eta hezkuntza-sistemako beste eragile batzuen lanerako erreferentzia-puntu nagusi bihurtu behar da, derrigorrezko irakaskuntzaren helburuak zehazten dituen heinean eta ikastetxeei, ikasle guztiei emandako hitza betetzeko eskatzen dien neurri berean.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleri-eredua eta prestakuntza

Oinarrizko irakaskuntzaren amaierarako definitzen diren ikaslearen irteera profila aztertuta, zentzuduna da irakasle ereduaz eta profil horiek garatzeko irakasleek behar duten prestakuntzaz itauntzea: *nolako irakasleak behar ditugu halako ikasleak izateko?* EAEn eta Nafarroan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzak emateko, beharrezkoa izango da unibertsitateko gradu-titulua edo titulazio baliokidea izatea, bai eta graduondoko mailako prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa ere. Iparraldearen kasuan, (...) (osatu beharko litzateke nik ez dut legean topatu). Honen harira, eztabaida taldean parte hatu duten kideen aburuz, irakasle hasiberriek 3 herrialdeetan jasotzen duten hasierako formazioa sakonki aztertu beharko litzateke, euskal eremuan zer nolako irakasle profilak ari diren garatzen eta aiprosenak litzatekeen horietara gerturatzeko.

Peillon legeak ez bezala (hau baieztatu behar da), LOMLOEk bere 91. artikuluan jasotzen ditu arestian aipatu araubide orokor horiek gauzatzeko **irakasleen funtzioak**, zein den DBH eta Batxilergorako ezartzen den irakasle-profila, alegia. Hiru maila ezberdinu daitezke: 1) diziplinaren ikas-irakaskuntza arlo zabalarena, 2) lan hezitzailea izendatu daitekeena eta, 3) lankidetzeta eta komunitatearekiko harremana hartzen dituen. Gainera, azpimarratzen da irakasleek lankidetzeta eta talde-lanaren printzipioaren pean beteko dituztela jarraian adierazitako eginkizunak.

Lehenengoari dagokionean, bost dira zehazten diren eginkizunak: a) Esleituta dituzten arloak, ikasgaiak, moduluak edo curriculum-eremuak programatzea eta irakastea; 2) Ikasleen ikaskuntza-prozesua ebaluatzea eta irakaskuntza-prozesuak ebaluatzea; i) Agintzen zaizkien irakaskuntza-, kudeaketa- eta zuzendaritza-jarduerak koordinatzea; k) Hezkuntza-administrazioek edo ikastetxeek berek zehaztutako ebaluazio-planetan parte hartzea; eta l) Dagokion irakaskuntza-prozesuak ikertzea, esperimintatzea eta etengabe hobetzea. **Hortaz, ez da nahikoa DBH zein Batxilergo irakasle batek bere diziplina-arloa menperatzearekin, ezagutza-arlo horretan ikas-irakaskuntzari lotutako gaitasunen jabe**

ere izan behar du, hala nola, jakin behar du programatzen, irakasten, ebaluatzen, koordinatzen eta ikas-irakaskuntza prozesuak hobetzeko ikertzen.

Bigarren funtzio-arloaren kasuan, bi betekizun azpimarratu daitezke: e) Ikasleen garapen intelektuala, afektiboa, psikomotorra, soziala eta morala zaintzea; eta g) Ikastetxeko jarduerak errespetuzko, tolerantziako, partaidetzako eta askatasunezko giroan garatzen laguntzea, ikasleengan herritartasun demokratikoaren eta bakearen kulturaren balioak sustatzeko. Hau esanda, taldeak irakasleen funtzioari buruz duten pertzepzioa eta legeak arautzen duenaren arteko jauzia topatzen dugu. Izan ere, taldekideen iritziz, Bigarren Hezkuntzako irakasleak materia baten espezialistak dira baina ez dakite “hezitzaile” izaten. **Zer da DBHn eta Batxilegoan hezitzaile izatea? Legeak zuzenki jasotzen du alor hau? Zein jarrera eta formazio behar du DBHko irakasle batek hezitzaile izateko?**

Azkenik, irakaslearen koordinazio eta gertuko komunitatearekin zubi-lana honela jasotzen da, zehazki: c) Ikasleen tutoretza, ikaskuntza zuzentzea eta orientatzea, eta haien hezkuntza-prozesuan laguntzea, familiekin lankidetzan; d) Ikasleen hezkuntza-, ikasketa- eta lanbide-orientazioa, zerbitzu edo sail espezializatuekin lankidetzan, hala badagokio; f) Ikastetxeek programatutako jarduera osagarriak sustatzea, antolatzea eta horietan parte hartzea, hezkuntza-esparruaren barruan edo kanpoan; h) Familiei aldian-aldian seme-alaben ikaskuntza-prozesuari buruzko informazioa ematea, bai eta prozesu horretan lankidetzan aritzeko orientazioa ematea ere; eta j) Ikastetxearen jarduera orokorrean parte hartzea. Bistan denez, **irakaslearen eginkizunak ikasgelako eremua gainditzen du eta ikastetxearen hezkuntza proiektu zabalarekin konektatzen da**, berau osatzen duten gainontzeko hezkuntza-eragile (famili,a bereziki) eta egiturekin gertuko harremanak sustatuz.

Irakasle funtzio horiek aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa da **etengabeko formakuntzaren ikuspegia eta politika egokia** garatzea. EAE eta Nafarroarako lege-markoak bi dimentsioetan kokatzen du etengabeko prestakuntza-programen planteamendua (102. artikulua): batetik, ezagutzak eta metodoak zientzia eta didaktika espezifikoen bilakaerara egokitzea; eta bestetik, irakaskuntzaren kalitatea eta ikastetxeen funtzionamendua hobetzera bideratutako koordinazioari, orientazioari, tutoretzari, hezkuntza inklusiboari, aniztasunari arreta emateari eta antolaketari buruzko alderdi guztiak ere barneratzen ditu.

Era berean, berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoa jasotzea garrantzitsutzat jotzen da, genero indarkeriaren aurkako planekin bat egitea, bai eta ikastetxeen eremuko jazarpenari eta tratu txarrei buruzko prestakuntza espezifikoa ere. Zentzu horretan, haurren aurkako indarkeria prebenitzeko, antzemateko eta horri aurre egiteko prestakuntza espezifikoa jasotzea ere ezinbestekotzat hartzen da.

Hezkuntza-administrazioek irakasle guztien informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera eta digitalizazioko nahiz atzerriko hizkuntzetako prestakuntza sustatuko dute, haien espezialitatea edozein dela ere, eta eremu horietan prestakuntza-programa espezifikoak ezarriko dituzte. Halaber, ikerketa- eta berrikuntza-programak sustatu behar dituzte, **lankidetzalana eta lanbide-sareak eta ikastetxeen sareak bultzatuz, prestakuntza, autoebaluazioa eta irakaskuntza-jardueraren hobekuntza sustatzeko**. Planteamendu honetan txertatu beharko litzateke Iparraldeak duen egoera eta lanbide-sareen markoan eman daitezkeen urrats estrategikoak.

II. Euskara eta euskal kultura Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan

Komunitatea biziberritzeko elementuak euskara eta euskal kulturgintza direla aipatu da, hori da komunean duguna eta horri buruzko kontzepzio kolektiboa sortzeko beharra ikusi da 3 herrialdeetan: **Nola ulertzen dugu euskal kultura DBHn eta Batxilergoan? Zertan gorpuzten da?** Atal honetan oso aproposa litzateke, DBH eta Batxilergo mailan euskara sustatzeko ekintza planen EH mailako diagnostiko bat egitea (esaterako, EAEn Euskararen Aholku Batzordeak burututakoaren gisakoak). **Parte hartzaileen iritziz, sormena garatzea da euskara eta euskal kultura indartzeko elementu gakoetako bat**, grina sorrarazi beharko litzateke ikasleei, kulturgintzaren historia eta oraina irakatsiz eta sortzen jarriz. Hori izan daitekeelako hizkuntza gaitasuna garatzeko eta kulturen arteko kontzientzia hartzeko moduetako bat.

Nolanahi ere, hainbat kezka piztu dira gai hau zabaltzerakoan: **Nola kudeatu hizkuntzak institutuetan? Nola kudeatu gazteen euskalduntzea XXI. mendean? Nola lortu kohesioa euskara eta inklusioa kontuan hartuta?** Hemen komunitatea – euskara/euskal kultura – inklusioa dilema mahaigaineratu da: inklusioa/kohesioa ala arnasguneak/babesguneak? Lehenak bigarrena baztertzen du? Bigarrena bateraezina al da lehenengoarekin? Ala bateragarriak dira? Bateragarriak izango ez balira zeinen alde egin beharko luke Euskal Hezkuntza Eremuak? Euskara eta euskal kultura ikastetxeetan egoki transmititzeko, euskararen erabilera handitzeko, familien eta ikasleen hizkuntza eskubideak bermatzeko, beharrezkoak/komenigarriak dira ‘babes-neurriak’ hartzea, jakinda neurri horiek inklusio printzipioekin talka egin dezaketela?

Hortaz, kohesioaz ari bagara, ikaslearen profilak baditu hainbat potentzialitate. Esaterako, Hezkuntzaren Euskal Sarearen eraikuntzaz ari garenean azpimarratu berri diren bi eztabaidagune: batetik tokian tokiko inklusioa (emigrazioa, etorkinak, euskalduntzeko beharra...) eta, bestetik, Hezkuntzaren Euskal Sareak integratuko dituen hiru erkidegoen artean gauza daitezkeen ekintza kohesionatzaileak. Izan ere, ikaslearen profileen baloreak (berdintasuna, generoa, indarkeriaren kontrako kultura, tolerantzia,

feminismoa...) eta konpetentziak jasotzeaz gain, hizkuntzen ezagutza ere zehaztuta egon behar da.

Hezkuntzaren Euskal Sare horretan sareko ikasleek Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean Euskal Herriko hiru hizkuntzak, Euskara, Gaztelania eta Frantsesa, menperatu behar dituzte. Ez dago EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean gauza kohesionatzaileagorik bertako hiru hizkuntzen ezagutza baino. Ezagutza honek aurrerago aipatzen diren elkartrukeak, irakasleak, ikasleak... askoz ere errazagoak eta eraginkorragoak egingo lituzke.

Inklusioa da beste erronka bat. Nola uztartu Hezkuntzaren Euskal Sarea osatzearen helburua inklusioarekin, edo beste modu batera esanda, euskararen ezagutzarekin, batez ere. EAEn zentratuta, garbi dago euskalduntze prozesuan errealitate ezberdinak badirela. Egoera konkretu eta ezberdinetan egongo dira Tolosako zein Barakaldoko ikastetxeak. Gauza bera ez den bezala Ikastola eta Eskola Publikoa.

Polemiketan sartu gabe, alde honetan hezkuntzako eragile guztiek, Administrazioak barne, Administrazioak batez ere, garbi izan behar dute, ikaslearen profil horretan euskararen ezagutza dela ezinbesteko alde bat, DBH bukaeran ikasle guzti-guztiak euskaldunak izan behar direla. Honek bide bat irekitzen du. Ikastetxe bakoitzak, bere errealitate soziolinguistikoa aintzakotzat hartuta, bere hizkuntza eta hezkuntza proiektu propioa osatzeko, beti ere jakinda helmuga zein den.

Horretarako, ikastetxeen autonomia sustatu behar da eta Administrazioa inplikatu behar da baliabideak emanez. EUSLE proiektua, Aula 0, Harrera gelak... Bada errealitate bat ukaezina: EAEko hainbat eta hainbat zonaldeetan ikasle etorkina eskola publikoan metatzen dela. Matrikulazio sisteman sartu gabe, errealitate honek erantzun irmo bat behar du, nahi badugu ikasle mota hauek ere euskalduntzea. Baliabideak bai, ezinbestez, baita ere ekintza kohesionatzaileak elkar trukeak, topaguneak.... tokian tokiko ikastolen eta eskola publikoen artean⁴.

Laburbilduz, Hezkuntzaren Euskal Sarea osatzeko bidean ezinbestekoa da definitzea sare horretan nolakoa den gure ikasleriaren profila.

III. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan martxan jar litezkeen ekintza kohesionatzaileak

⁴ Hala ere inklusioarekin badira hainbat debate pendiente. Inklusioaren ardura Eskola Publikoak bakarrik jaso behar du? Zein da ikastoleen ekarpena? Egun EAE eta Nafarroan dauzkagun egiturek (Publikoa, Ikastolak, Kristau eskola) ez al dute sustatzen bazterkeria eta ghetorizazioa?

Azterketa honen hasierako atalean, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa etapetan Euskal Herri mailako proiektu kohesionatzaileak bultzatu ahal izateko legezko baldintzek sortzen duten errealitateari hurbilpen xumea egin zaio. Jarraian eta modu irekian, taldean esploratu diren aurretiazko ideia/aukera posibleak zerrendatzen dira.

- A. **DBH eta Batxilergoan irakasle izateko berariazko unibertsitate graduak sortzea**⁵ proposatu da, ez baita bidezkoa oinarrizko formazioan hezkuntzarekin zerikusirik ez duen 4 urteko gradua egin eta gero, irakasle izateko urtebeteko masterra besterik egitea. Prestakuntzaren oinarrizko zutabeak: presentziala, euskarazkoa eta kalitatezkoa. Administrazioen laguntza eta euskal unibertsitate guztien elkarlana eta baliabide gehiagoren beharra (EHU, MU, UEU, UPNA, Iparralden?)
- B. DBH eta Batxilergo irakaslea izateko hastapeneko formazioarekin batera, **etengabeko prestakuntza eta irakasle hauen garapena birpentsatzea** agertu da modu xume baina adierazgarrian. Zein izan behar da irakasle hauen karrera profesionalaren progresioa? Zeintzuk hobetzeko aukerak? Zeintzuk dira EAE, Nafarroa eta Iparraldeak DBH eta Batxilergo irakasleen garapen zein berrikuntzarekiko duten politika estrategiko eta plangintza zehatza?
- C. **Ikastetxe bakoitzaren errealitate soziolinguistikoari erantzungo dion hizkuntza-proiektu osoak** lantzea. Ahozotasuna, transmisioa, jakintza soziolinguistikoa, etorri berrien euskalduntzea eta ikasleen arteko hizkuntza praktikak sustatuko dituen. Bestelako diziplina batzuekin gurutzatzearen garrantzia: kultura/sormena (musikariak ikasgelan, bertsoaritza, idazleak eskoletan...), kirola (ikastetxe barruko zein kanpokoen arteko kirol-jokoak), dantza, ikus-arteak, arte plastikoak, zientzia (STEAM arloa, zientzia-azoka)... DBHk eta Batxilergoak hizkuntza eta kulturarekiko atxikimendua handitzeko etapa izan behar du eta horretarako aukera errealak sortu behar dira.

Ikastetxearen proiektu horretan **herri-curriculumarekin lotura bilatu** beharko da, integratu. Eta **balio konpartitu batzuk** eduki beharko ditu, hala nola, *berdintasuna eta generoa* (aukera berdintasuna eta ezberdintasunak gutxitzea, kultura aniztasuna, LGTBI...), eta *ingurumena* (larrialdi klimatikoari aurre egiteko neurriak, sentsibilizazioari begirako praktikak). Herri curriculumarekin lotzeko eta proiektu osoaren garapenerako **komunitatearekin artikulatzearen garrantzia**, ez soilik eskola-komunitatea, inguru osoa baizik. **Udaleri eta eskualde mailako hezkuntza-**

⁵ Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko baldintzak lege organikoetatik etortzen dira; ezarrita daude. Horrek bakarrik ematen du bidea irakasle izateko. Hegoaldean laur urteko gradua gehi urte beteko masterra; Iparraldean, hiru urteko gradua eta bi urteko masterra. Bide hau ez da egingarria.

mahaien eraketa proposatu da proiektu hauei segimendua egiteko, aholkularitza emateko, baliabideak eskaintzeko, bidelagun izateko.

IV. Balizko proiektu izarra: Euskal Herriko batxilergorako hezkuntza, hizkuntza eta kultura programa bateratua

102/2010 Errege Dekretuak Espainiako ikastetxeetan Batxiler eta Baccalauréat titulazio bikoitza egiteko eskaintzen duen aterki juridikoa baliatuz, taldean proiektu kohesionatzaile hipotetikoaren oinarrian identifikatu diren bi behar integratu daitezke. Batetik, hegoaldea eta iparraldearen arteko **elkartrukea, elkar ezagutza eta horretarako espazioak sortzearen premia** ase daiteke; eta bestetik, **ikastetxe bakoitzaren errealitate soziolinguistikoari erantzungo dion hizkuntza-proiektu osoak** lantzeko proposamena ere.

Ideia bideragarritasuna aztertu beharko litzateke, baina bete-betean erantzuten dio hezkuntza-etapa honetan identifikatu den behar bati: 3 administrazioetako ikasleak elkarren berri izatea kohesiorako lehen baldintza izan beharko litzateke, elkarrekin aritzea. Ezin dute hezkuntza etapa hau amaitu esparru askotan eta eremu anitzetan elkarren berri izan gabe, esaterako, trukaketak, aisialdia, kirolak, oporrak eta agian ikasgelan bertan ere.

Ikasleei elkar-ezagutza eta ikaskuntza-esperientziak eskaintzeko abaguneak, ideia orokor batera eraman ditu taldekideak, hain zuzen ere, **bilguneak sortzera** (irakasleen bilgunez hitz egin da, bereziki). Lurraldetasunaren maila mesora, alegia, koordinazio maila horretara eskalatzeko hainbat klabe eman diren arren ez dira konkrezioak eztabaidatu. Alegia, ez dira potentzialtasun, oztopo, aukera eta aliantza terminoetan definitu. **Irakasle bilgune horren baitan hainbat egitasmo antolatzeko aukera** egongo litzateke.

1. **EAE-Nafarroa-Iparraldeko irakasle trukeak** antola litezke. Asko lagunduko luke geure hezkuntza-ikuspegiak, praktikak eta moldeak ezagutzen hasi eta ipar gisa hartzen dugun EH kohesionatua behetik gorako noranzkoan egiteko. Txikitetasunetik handitasunera, sareen arteko lehia saihestuz eta udalak lan horretan inplikatu.
2. Behetik gorako noranzkoarekin batera, **goitik beherakoa ere behar** du. Alegia, EH kohesionatuta behar dugu, bai, baina hori ez da ikusten helburu bat bere baitan. Kohesioa behar dugu pertsona euskaldun, koherente, kompetente eta kontzienteak garatzen laguntzeko ezinbestekoa zaigulako. Beraz, egunero praktikak trukatzeko hasi eta hezkuntza praktika kohesionatuak ahalbidetzearekin batera, **ipar bat behar dugu** (tresna pedagogiko kohesionatzaile indartsu bat). Ikastolak, esaterako, horri pertsona-eredua deitu diogu, 114 ikastolentzako **zorkomuna** da, etapaz etapa ikasle bakoitzarengan sortu/utzi nahiko genukeen inpaktua jasotzen du eta irakasle zein ikasleentzako mandatu nagusia bilakatzen

- da. Beharbada, hezkuntza-eremu kohesionatu batez aritzeko, lehenik eta behin, **ondo definitu beharko litzateke nolakoa nahi dugun izatea Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergo etapa** eta, ondorioz, zer aldatu beharko litzatekeen Nafarroan, Iparraldean eta EAEn.
3. **Ikasleen egonaldi ertainak EHko lurralde desberdinetan**, eta bereziki bultzatzea iparralde-hegoalde harremana. Hegoaldetik begiratuta, gure gazteei oso arrotza egiten zaie eta etorkizunera begira arriskua dago arrakala gero eta handiagoa izateko. Une honetan gainera, iparraldean hegoaldeko gazteentzako oso interesgarriak izan daitezkeen kultur-ekimenak daude martxan, baina ez dira ezagutzen. Askoz gertuago dituzte munduko beste puntaren bateko kontuak.
 4. **Etorri berriak gurean, hau da, gure hezkuntza ereduan eta gure hizkuntzan murgiltzeko ditugun programek, moduek eta baliabideek arrakastarik izan ez dutela aipatu da.** Frustrazio handiz bizi dira egoera hauek etapa hauetan eta ez dugu lortzen, salbuespenak salbuespen, prozesu kohesionatzailea izatea. Egia da errealitatea konplexua dela baina beste eredu baterantz joan beharko ginateke akaso: iraupen luzeagoko eremua, hizkuntza-jabekuntzaz gain bestelako ikaskuntza batzuk barnebilduko dituen, ikastetxeetako ikasle bidelagunaren laguntzaz, euskal familietan asteburuak pasatzeko aukerarekin, aisialdiko hezkuntza ez-formaleko eragileekin elkarlanean...

V. Azken ondorioak (behin-behinekoak)

Laburki bada ere, honako ideiak azpimarratuko genituzke:

- i. Bigarren Hezkuntzako taldean zehaztasunetara iristea kostatu da, eta une honetan ez da jaso martxan dauden proiektu kohesionatzaileak (diagnostikoa osatu, zabaldu beharko litzateke lurraldez lurralde). Adibidez, EH mailako ikasleria elkartzeko egin diren ahaleginak modu isolatu eta deskoordinatuan egin dira (ekimenen sistematizazio falta, estrategia bateratuaren falta, toki zehatzetan aurrera eramaten dira duten inpaktuaren jarraipena egin gabe).
- ii. Ideia gehienek gaur egun antzematen diren arazoetan dute jatorria. Bereziki, hezkuntza-ereduari, irakasleen formazioari eta euskara eta euskal kultura eta inklusioari dagokionean.
- iii. Ikaslearen profilak, beraz, lagundu ahal du irakaslearen profila definitzen eta, era berean, izan daiteke hezkuntzaren etapa ezberdinen arteko elementu kohesionatzailea.
- iv. Badira kohesioa bultzatzeko zenbait aukera berri (lehenengo hurbilpenean batzuk aletu ditugu; orain sakonki aztertu eta akaso beste berri batzuk azaleratuko dira).
- v. Euskal hezkuntza-eremu kohesionatu batez aritzeko, akaso, lehenik eta behin legean jasotzen denarekin kontrastea egin beharko litzateke. Eta ondo definitu

EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA

etorkizuna elkarrekin lantzen

FICOPA. Irun | 2023.09.30

koEHSioa

beharko litzateke nolakoa nahi dugun izatea Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergo etapa Euskal Herrian eta, ondorioz, zer aldatu/elkar trukatu beharko litzatekeen Nafarroan, Iparraldean eta EAEn ditugun egiturak baliatuz.

Hurrengo urratsak:

- Dokumentu hau kritikoki aztertu taldekideen artean: ekarpenak, zuzenketak...
- *Euskal Herriko batxilergorako hezkuntza, hizkuntza eta kultura programa bateratua* egitasmo-proposamena baloratu eta bere bideragarritasuna aztertu
- Ondoren, partekatu FICOBAn egon ez zirenekin.